

Pakistan ezagutzeko

Jardunaldiak
antolatu ditu
Jatorrin
elkarteak ▶ 7



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2007-05-20 ▶ V. urtea ▶ 1.165. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Giro berezia izan da Ereitek antolatu duen Mundujaian

TOLOSA ▶ 'Kulturartean' jardunaldien baitan, atzo kultura desberdinak ezagutzeko aukera izan zen ▶ 6



Plaza Berrian jarritako jaimen barruan ekintza desberdinak antolatu zituzten atzokoan. NEREA URBIZU



I. TERRADILLOS

ONINTZA LASA ▶ EA-REN TOLOSAKO ALKATEGAIA

«Oreka bermatzeko indar nahikoa espero dugu»

«Hitz politikak baino haratago, ekintzetara joz» egingo du lan ▶ 3

IRURA ▶

Boto zuria emateko eskaria

Herriko hainbat taldek eta eragilek ▶ 5



Tolosa egitea

emanbotoavota
bestemodubatean deotramanera

ONINTZA LASA ARTEAGA
Tolosako Alkatezarako Hautagaia
Candidata a la Alcaldía de Tolosa




Ibarra egitea

emanbotoavota
bestemodubatean deotramanera

LUIS IGNACIO ALONSO MORETON
Ibarra Alkatezarako Hautagaia
Candidato a la Alcaldía de Ibarra



www.saldias-miguel.com



Saldías Miguel
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

% 60 arteko aurrezkia
zure ibilgailuaren
aseguruan

Iturrioz kalea, 14 • BEASAIN
Tel.: 943 085 600 • Faxa: 943 085 400
Nafarroa Etorbidea, 12 beheka • 20400 **Tolosa**
Tel. 943 651 189 • Faxa: 943 653 462
San Juan kalea, 6 • ANOETA
Tel.: 943 698 004 • Faxa: 943 653 462

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Nire botoa Marianorentzat



Azken egun hauetan burua irakiten izan dut, bor-bor, ezin erabaki nor aukeratu aurtengo hauteskunde-etarako; baina burua ondo hoztu ondoren, azkenean egin dut hautua. Nire botoa, Marianorentzat da. «Ez nuen uste

Kristinak horrela pentsatzen zuenik» esango du bakarren batek. «Mariano? Baina ez al da Mariano kristau demokrata?» besteak. Ba... bai. Aurtun Marianori eman behar diot botoa. Badakit Leitzako herritar askorentzat ez dela gustuko hautagaia, baina... ze arraio; Gora Mariano! «Baina neska hau burutik dago».

Azken 10 egun hauetan makina bat gutun irrifartsu jaso ditugu etxeko postontzian, batearen eta bestearen aldeko

bozka eskatuz... garbiak gehienak; xaboi eta leungarriz ondo igurtzitako zerrrendak; eta baita kutsatuak, zikinak, izerditsuak, gaixotuak, mizkatuak, lokatuak... kutsatuenean artean kutsatuena aukeratu dut: Mariano. Mariano Ayerra, jakina, zein uste zenuten bada?

Bihar hasiko dira errodatzen gure herrian Mariano Ayerra apaizaren bizipenetan oinarritutako filma. *La buena nueva*. 36ko guda hasi zenean, Altsasuko apaiza zen Mariano.

Badakigu eliza katolikoaren jerarkiak zein jarrera hartu zuen guda zibilean eta ondorengo urteetan. Marianok ordea, Iruñeako apezpikuaren aginduak sotana azpitik pasa eta aurre egin zion diktaduraren dotrinari. Hori guztia baina, filma estreinatzen denean ikusiko dugu. Aurretik, Mariano Leitzan barrena ibiliko da, Helena Taberna zuzendariaren aginduetara. Lehen eszena, apaizaren etxeko baratzean errodatu behar dute, bihar.

La buena nueva filmaren errodojean, fikzioa eta erralitatea nahastuko dituzte egileek, hauteskundeetan gertatzen den bezala.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



hilberria ▶

Emazte on, ama bikainta amona dotorea ona zenuen izana eta bihotza hobea gogoan izango dugu zuk zenuen umorea bizizari eman diozu berezia kolorea zoriontsu joan zara gu triste gaude ordea amama izan ezazu merezitako pakea zugandik sortu izana benetan da ohorea zainduko dugu zuk Añein erin zenuen lorea

oharra ▶ gorpua Azkoitiko beiletegian dago

Inocencia Olaizola Segurola

(Tomas Elduaiearen alarguna)

Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere seme-alabak: Piedad eta Jose Mari Etxaniz, Vicente, Jose Ignazio (+) eta Milagros Astigarraga, Jesus eta Olatz Uranga; bilobak: Izaskun eta Jose Ignacio, Belen eta Ignacio, Mari Jose, Ander, Amaia eta Iñigo, Estibux eta Asier, Oihana eta Gorka; birlobak: Irantzun, Amagoia, Agurtzane, Joseba, Iker eta Egoitz; ahizpa: Anastasia; anai politikoak, bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta eror eror zaitzela GAUR IGANDEA, 19:00etan, Elosuko San Andres parrokiari, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

AZKOITIA, 2007ko maiatzaren 20a



hilberria ▶



Luxio Olarra Agiriano

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Tolosaldeko ezker abertzalea

TOLOSA, 2007ko maiatzaren 20a



ONINTZA LASA ▶ EA-REN TOLOSAKO ALKATEGAIA

«Indar nahikoa izatea espero dugu Tolosaren oreka bermatzeko»

«Ikuspegi aurrerakoi batetik, eskubide guztiak bermatuz, borroka eginez eta hitz politikak baino haratago ekintzetara joz» lan egingo duela bere alderdiak dio

IÑIGO TERRADILLOS

Onintza Lasa Arteaga (Tolosa, 1972) EAren Tolosako alkategaia da. Azken lau urteetan euskara zinegotzia izan da bertan, eta baita legebiltzarkide ere. «Gauzak beste modu batera egiteko bermea» eskaintzen du bere alderdiak.

Zein da lau urte hauetaz egiten duzun balorazioa?

Harremani eta giroari dagokionez, orohar, ona izan da, eroso, eta hau beharrezkoa da, harremanik gabe nekez egin daitekeelako elkarlaneko politika. Eduki ditugun erantzukizunetan saiaturako gara beti hartutako konpromezuak betetzen, eta horren adibideak hor daude. Erantzukizun lan bat egin dugu, gutxitan mediatikoa, baina egunerokoa, jarduera iraunkor batekoa. Balorazioa, beraz, positiboa da.

Azpimarratu nahiko zenukena?

Osoko bilkura askotan, ia-ia nolabaiteko fiabardurak jarri izan ditugun bakarrak izan gara, nahiz eta gobernuan ere egon. Baina ez inorren leialtasun kontragatik, alderantziz, Tolosarekiko leialtasunagatik. Desberdin bozkatu izan dugu askotan, eta horren arrazoia moduak izan dira, ezin baita gobernatu jendearekin kontaktu gabe, gauzak isilpean eginez. Ia gehiengo osoz funtzionatu dute. Horren aurrean, gure konpromezua ez da soilik udal barrukoa, baita jendearekin ere. EA saiaturako izan da beti egin behar dena txukun eta fundamentuz egiten. Inaugurazioen osteko funtzionamendua bermatu nahian egon gara lanean, badakigulako argazki batez gain, gauzek funtzio bat dutela, eta hori ahalik eta egokien bete behar dela. Azken batean, marketin hutsa baino, guk edukiak nahi ditugu, eta jarraituko dugu hori bermatuz.

Zer eskaintzen du EAK?

Argi eduki behar da gauzak beste modu batera egiteko bermea eskainiko dugula. Hirigintza arloan, esaterako, pertsona ardatz duen eredu bat. Izan ere, ezin dira etengabe eraikuntzak sortu espazio libreak ahaztuz. Hirigintza gehiago da, herri eredu bat da, eta hemen aparkalekuak ga-



I. TERRADILLOS

LEGEALDIA

«Erantzukizun lan bat egin dugu, gutxitan mediatikoa, baina egunerokoa, jarduera iraunkor batekoa»

rrantzitsuak dira. Guk aparkalekuak modukoagoak egiten saiaturako gara, errotziokoak, esaterako. Plan orokorrean adibidez, azken unean gure planteamendu bat onartu zuten, bi zumardiak aparkaleku bezala baliatzearena, alegia, eta beste leku batzuk ere baditugu pentsatuta. Azken batean hirigintza jasangarri bat bultzatzen dugu, baina hori bai, administrazioak markatu eta era argi batean finkatu eta gauzatu behar du, eta ez ekimen pribatuak. Ongizateari dagokionez, haurreskolaren kalita-

HUTSUNEAK

«Ezin da gobernatu isilpean, jendearekin kontaktu gabe; marketin hutsa baino, guk edukiak nahi dutugu»

tea bultzatzen jarraituko dugu. Gerontologikoa egitea ondo dago, baina dugu ahaztu behar etxeko laguntzak ere egon behar dutela. Bestalde, *Tolosa buruan eta ibili munda*n gure leloari jarraituz, guk oso argi daukagu oso garrantzitsua dela gure onena munduan ezagutaraztea, azoken bidez, esaterako. Eta azokekin erlazionatuta dago komertzioa, eta iruditzen zaigu aparkaleku egoki batzuekin, Alde Zahar on batekin, hein handi batean oinezko den herri batekin eta abarrekin erakar daitekeela

PROPOSAMENAK

«Kafe Antzokia abian jartzea, hirigintza jasangarri bat eta komertzio txikiak bultzatzea»

jendea komertzio txikia bultzatuz. Kulturari, berriz, Kafe Antzokia da gure erronka, eta ea hurrengo legealdian egiten dugun. Halaber, herri taldeak sustatu eta liburutegiko eskaintza zabaldu nahi dugu. Kultur ekitaldi antzatzatolatu behar dira herritar guztiei eskainiak. Euskararekin, normalizazio lanetan eta erabiltzearen alde jarraitu behar dugu, eta komunikabideen arloan landu nahi dugu bereziki. Arlo hauek guztiak genero ikuspegi batetik landu behar dira. Eta noski, ikuspegi aurrerakoi ba-

tetik, jakinda gaur egun zein den egoera, argi izanik pertsona guztiak dutela eskubide berdina berdin garatzeko eta, batez ere, borroka eginez, lan eginez eta hitz politikak baino haratago, ekintzetara joz.

Gerontologikoa zarata handia sortu duen gaia izan da.

Gu zintzotasun guztiz aritu gara lanean, hasieran kritiko izanez itxierarekin eta ondoren plataformarekin. Pozten gara gerontologiko berriarekin, baina, orain bertako kalitatea irizpide publikoaren araberakoa izatean dago erronka.

Voith-Gorostidi etxebizitzaren kontra azaldu zarete.

Oso kontra egon ginen gauzak izugarriko iluntasunarekin egiten ari zirela ikusita. Dentsitate maila oso handia da, eta batere definitu gabeko proiektua da. Gu gauzak erabat gardan egitearen alde gaude. Jendea kontentuz egon daiteke etxebizitza batzuk egingo direlako, baina guztiak ez du balio. Marketin handia egin dute honen guztiarekin. Gazteek etxebizitza edukitzea ez da zertan Voith-Gorostidi era horretara egin behar, badaude beste modu batzuk. Ziurtasuna baino inokognita gehiago dugu egun proiektu honek.

AH!ri buruz ze iritziz duzu?

Badu garrantzia konektatuta egoteak, beharrezkoa da, egokitu egin behar baita gizartea. Gero beste kontu bat da gauzak nola egiten diren. Ingurumenaren errespetuak abiatuta egin behar dira. Oreka mantentzea da kontua. Ikuspegi orokor batetik ikusi behar da, jakin behar da zein gizarte eredu nahi dugun sortu.

Duela lau urte bezala herritar talde batek ez du ordezkari txarik izango.

Orain ere hala gertatu da zori-zarrez. EA lanean egon da bakera eta normalizazioa lortzeko. Gizarte zati bat dago aukera politikoa duena eta ezin da ezikusiarera egin. Lau urte hauei dagokionez, gure batzordeetan erabat askeak izan dira etortzeko, eta esan beharra dago ez direla ia agertu, baina hau guztia gure herriaren normalizazio faltaren adierazle da.

Alkateak nolako izan behar du, zure ustez?

Hartzaile ona izan behar du, langilea eta zintzoa. Kudeatzeko gaitasuna eduki behar du, eta jendearekin kontaktu behar du gauzak egiteko orduan. Herria sentitu behar du.

Nolako emaitzak espero dituzu datorren Igandean?

Hauteskundeetatik negoziatioa bultzatuko duen egitura-keta ateratu nahi dugu. Indar nahikoa izatea espero dugu gauzak baldintzatze eta Tolosaren oreka bermatzeko.

GAURKO IRUDIAK



Asteburua aprobetxatu dute politikariek kalera, herritarrengana ateratzeko

E. Eziza ▶ Kampainaren barruko asteburu hau aurkezpenak eta ekitaldi ezberdinek egiteko aprobetxatu dute alderdi politikoek. Ikastegiaren (1) eta Alegian (2), herritarrek albon dituztela EAren hautagaien zerrenda aurkeztu dute. Ikastegiaren Eneritz Maiz eta Alegiaren, Aitor Sarasola dira zerrendaburuak. Gauza bera egin dute Villalonakok (3), baina hemen ASBren zerrendakoei ere larrea egin diete, hauen legez kanonko sailatze Berron (4) aurreko legez kanonko sailatze egin direnak. Giroa plataformak, berriro aurkezten dira hauteskunde hauetan, eta z...

renda kide bertien aurkezpen ekitaldia egin zuten herenegun. Ekitaldian, aurreko urteetan egin duten lanaz eta boronbide egiteko gertatzen denaz hitz egin zuten Jon Jauregi alkategiak eta painontzekoek. Tolosan, Tolosaldeko EAren alkategia izan ziren atzo, Markel Osano EAren Gipuzkoako Abaldun Nagusirako hautagaia eta Batzar Orokortetako lehendakari izateko hautagai den Begonia Bakero (4). Berralde, Eusko Alkartasunak antolatuta, herenegun luntzean, Karlos Garaldukoa (5) lehendakari ohia izan zen Tolosalde Kultur Etxean, politika orokorraz mintzatuaz. «...»

BI HITZETAN ▶ MIKEL ARTEAGA (GIPUZKOAKO ENBA-KO LEHENDAKARIA)

«Landa auzoek arreta gehiago merezi dute agian»

E. Eziza ▶ ENBA, nekazarrien sindikatua da, eta Gipuzkoako egoitza zentrala Tolosan dago. Bertako lehendakari da Mikel Arteaga (Asteasu, 1968). **Nolako balorazioa egiten duzu Tolosaldeko Udaleren asan 4 urtekoak egiteaz?**

Geura bezalako elkarte bat ez da udal konkretu batetara mugatzen beraz oso zaila egingo zenuke horrelako gaitzeta bati erantzutea eta udal jakin baten jarduerara baloratzea. Hala ere, uste dugu eguneroko merkaturaren gaiari irtenbide

egokia eman zaiola eta agian, landa auzoek arreta gehiago merezi dutela, orain Bediaorenekin sinatu berri dutenaren idotik. **Oro har, zer esaketa egiten duzue hurrengo Udalerat?** Parte-hartzea sustatzea, eta



Mika

auzoetako iritziak kontuan izatea. **Euro espartatik, zer nabarmentzen duzue hurrengo Udalerat?** Lur antolamendua gaitz oso garrantzitsua da baserriaren etorkizunerako. Beraz, arau subsidiarioen hasierako onenpena eman berri ditzeten, lur hiritar-ekinaren baluak zorrotz ematea eta etxe isolatuak egiteko izaten den pikareska ezabatzea.

EKITALDIAK

ANOETA Bihar, 19:00. Eusko Abertzale Ekintzaren aurkezpena egingo dute zahar etxean. Gitarra zerbitzuak eta orhar helduek dituzten kezak eta beharrak entzutea izango dira.

LIZATZA Bihar, 20:00. Esker abertzaleak delirio herri batzara egingo dute udaldebain.

ORENDAIN Gaur, 11:00. Murala margotuko dute plaza ezker abertzalekoek. Ondoren, 14:00etan, indarrak batzeko, bazkaria egingo dute Elboas elkartean.

TOLOSA Bihar, 19:30. Beotibar pilotalekuan Eusko Abertzale Ekintzaren ekitaldi nazionala egingo dute.

DATUA 10

Aurkezten ez diren alkateak. Datoren ostean, hilaren 27an gauzatuiko den udal hauteskundeetan, azken legegaldi honetan alkate izan diren hamar pertsona ez dira berriro alkatezarako aurkeztu. Horien artean dira: Berastegiak (urte askoan alkate izan dena), Ametzakok, Eudangoa, Alegiok, Abartzekok, Gaztelukok, Lizartakok, Alburtxok, Leizakok eta Hernaldiek.

IRITZIA ▶ BAKARTXO TEJERIA (VILLABONANO EA-REN ALKATEGAIA)

Tolosaldea eskualderako estrategia



Tolosaldea, 45.000 biztanle biziz daren 29 herririk osatzen dute. Beraien tipologia eta neurri ezberdinek, guretzat eta gure familiakoentzat bizi egitasmoak garatzeko nahiz dugun bizilekua aukeratzeko orduan, askotariko aukerak eskaintzen dizkigu. Hau baikoira izan arren, ezkorra du, herritar guztiak dituen zerbitzagarritasun eskualdeart, ezin zaiola herri ikuspegi estu baten aldeki aurre egin. Beharrezkoa da gutxieneko masa kritiko eta administrazio baten baino gehiagoren parte-hartzea, zerbitzu zenbaiten kudeaketa arrazoizkoa eta bideragarria gertatu dadin. Ura, zaborren jasotze eta birziklapena,

kirol hornikuntza, garraioa, hirugarren adimenezko ekipamendua (zaharren egotzak eta egunko zentroak), kultura inguruetarako sarbideak eta abarren, kudeaketa arri gara. Egia da apatu zenbait arlotan pausoak ematen ari garela, beharrik eta ekonomia-balabide eskasak medio, gehiago izanorren ezin duten guseak daude. Hauxe garapen ekonomikoari lotuta, eta eskualdeko erakundeen aldetik, adostutako ikuspegi argi eta trinko baten bultzada beharrezko beharrezko da. Apatta, eskualdeko industria poligonoa-esporetzako arakastetarako, ekonomia ekintzetarako lurzoruaren espazio beharra, egon badagoela egiaztatzen du, eta eskualde moduan egindako apustak, egitasmo hauek bideragarriak izateko, guretik egokienak direla ere, erakusten du. Apatta, eskualdeko industria ehunari heldu dio eta zabaldu eta haukude bidean jartzten izugindu dio. Baina, Apatta

gehiago behar dira, industria, logistika enpresentzako teknologia parkeak. Udaleren guztiak sailatu beharko genuke ekintza ekonomikoak garatu ahal izateko lurzoruak biltzen eta lurzoru hauen bideragarritasuna aztertu ondoren, garatuko diren egitasmo estrategikoen akordioak onartu. Fun Handi bat biltzartuz: «Guztiok gure energia eta indar guztiak batuz, Tolosaldea beste eskualdeen lehiakortasun mailara eramanez. Baina ekonomia, ez enpresa bakarririk merkataritza edo turismo eta astaldia ere bada, eta sektore hauetan eskualde estrategia baten beharra garbi ikusten dugu. Tresna badugu, «Tolosaldea Garatzen Eskualde Agentzia», bultzada eta adostasuna behar dira, «jatekoarekin ez baitago jolasik, ez eta aldierritariz arretarik. Ez da lotariko garaia edo gure zillorari begira arretzeka. Denok elkarrekin lanean arituzko garaia da. Elkarrizketaren garaia.

IRURRA

Boto zuria emateko eskatu dute herritarrek

Irurako hainbat talde eta eragilek «herritarrez osaturiko zerrenda bakarra» babestu dute



Ostralean, herriko plaza egindako ekitaldia. Irurako hainbat talde eta eragilek «herritarrez osaturiko zerrenda bakarra» babestu dute. Irurako hainbat talde eta eragilek «herritarrez osaturiko zerrenda bakarra» babestu dute.

ESTI EZEIZA Datoren asteko hauteskundeak, egoera berezian aurkitzen dira. Iruraren aurkariak, Gaste Alaiak elkarrean, Gaste asanblada, Udala, Udaleko ELAko langileak, jubilatuek, karteak, Musika Eskola, Ezker abertzale indies, Anetza pilota eskola eta odol-emallean elkarrean. Ostrail luntzean herriko pl...

regatik, herriko zenbait talde eragilek EAE babesteko, boto zuria emateko eskatzen diete irurarrak. Talde horien artean dira, Gaste Alaiak elkarrean, Gaste asanblada, Udala, Udaleko ELAko langileak, jubilatuek, karteak, Musika Eskola, Ezker abertzale indies, Anetza pilota eskola eta odol-emallean elkarrean. Ostrail luntzean herriko pl...

TOLOSA ▶ KULTURA



Uzturre txistulari banda bigarren

Erredakzioa ▶ Maiatzaren 5ean ospatu zen Heraniko Txistulari Gazteen III. Txapelketa. Bertan lehiatu ziren, Banda modalitatean Tolosako Udal Musika Eskolako irakasle den Iñaki Letamendiak sortutako Uzturre Txistulari Bandakoak. Hauek emandali bikaina eskaini zuten, eta bigarren geratu ziren. HITZA

IRURA ▶ KULTURA



Azken egunean, xare partidak

E. Ezeiza ▶ Kultur Astearen azken egunean, xare partidak jokatu zituzten ST-Palais herriko pilota eskolako kideek. Arratsaldean berriz, taberna eta elkartearen arteko mus txapelketaren finalerdiak eta finala jokatu zituzten. Egunari amaiera emateko *Pizti Domatzailea* haur-antzerkia izan zen frontoian. E. EZEIZA

TOLOSA ▶ KULTURA

NEREA URBIZU

Ereite Elkarte Multikulturalaren eskutik atzo kultura ezberdinetako ekintzak, lehengaiak eta ohiturak bildu zituzten jaima baten barruan. Ereitek San Estebanen egoitza berriaren inaugurazioa egin zuen herenegun, eta ekitaldi garrantzitsua izan bazen ere, atzo giro beroa sortu zen Tolosako Plaza Berrian.

Gutxinaka jendea hurbiltzen hasi zen, plazan entzuten zen erritmoz beteriko musikak erakarritza. Sartu bezain laster, haur batzuk animatu ziren Latinoamerikako margogintzako txokoa haien arpegitxoak apaintzeko.

Jaima handiaren barruan, kolore eta ekitaldi deigarriak antolatuta zituzten, txoko bakoitzak zuen bere xarma. Atzoko eguna gogoan gordetzeko oroigarri bitxi bat ere izan zuten bertaratu zirenek: izan ere, txapa bat egin ahal izan zuten,

Xarmaz beteriko txokoak, Ereiteren jaima koloretsuan

Bihar, jardunaldiekin bukatzeko Leidorren 'La masai blanca' filma izango da

izena jarriz, edo marrazkitxo-oren bat eginez. Kanpoan ere salgai izan ziren nazio ezberdinetako produktuak: Dominikar Errepublikakoak, besteak beste.

Bihar, 'La Masai blanca'

Bihar, 20:30ean Leidor Aretoan *La Masai blanca* filma izango da, Hermine Huntgeburth-ena. Bertan, Keniako oporraldi batzuetan gertatutako maitasun istorioa eta arriskuak ere ikusi ahal dira. Honekin, amaiera emango diote *Kulturarte*an jardunaldiak.



Arupegiak margotzen, ezkerrean. Hizkuntza ezberdinetan idazten irakatsi zuten. N. URBIZU



iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

Garbiketa. Garbiketa, mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritz langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telefono zenbakia: 943 29 82 32.

Suhiltzaileak. Basozainak, suhiltzaileak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. Interesatuak deitu 943 32 66 63 telefono zenbakira.

Irakasleak.

Hezkuntza, Eusko Jaurlaritza. Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu gorpuztze-hezkuntza, haur hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Interesatuak deitu 943 32 66 63ra.

GALDUTAKOAK

Bizikleta. Tolosako udaltzaingoa Plaza Berriko Iraxo tabernaren aurrean jasotako mendiko bizikleta jasota dago. Norbaitek galdu badu, udaltzaingorearen egoitzatik pasa argibide gehiago jasotzeko.



Jaima handiaren kanpoaldean postutxo batzuk jarri zituzten. Irudian, Dominikar Errepublikakoa. N. URBIZU

IBARRA ▶ ELKARTASUNA

Pakistan ezagutzeko aukera egongo da hurrengo astean

Jatorrin elkarteak II. Kulturarteko jardunaldiak antolatu ditu Ibarra Kultur Etxean eta Tolosako Oargi elkarteak; etzi hasi eta larunbatera arte izango dira

ASIER IMAZ

Etorकिन aldeko Jatorrin elkarteak, II. Kulturarteko jardunaldiak antolatu ditu Ibarra eta Tolosan datorren asterako. Hain zuzen ere, etzi hasiko dira ekitaldiok, eta datorren larunbatera arte luzatuko dira. Egundorretan Tolosako Oargi elkarteak egingo duten afariarekin emango diote amaiera egitarauari. Hitzaldi eta bideo emaldiez gain, «elkar bizitzaren aldeko ekitaldiak» antolatu dituzte Jatorrin elkarteak kideek, «xumeki antolatu ditugu kultur arteko jardunaldi hauek, baina hori bai, maitasun handiz».

Asia eta zehazki Pakistan izango da ekitaldien ardatza, «bertako etorkin kopuruaren handitzea kontuan hartu nahian, eta ezjakintasuna ezagutza bilakatzeko helburuaz», azaldu duten bezala.



Saad, Mohamed eta Mohamed Ibarra Benito Izagirre kultur etxean. HITZA

SAAD MALEC ▶ JATORRIN-EKO KIDEA

«Europako hainbat lekutan boto eskubidea dute etorkinek»

Saad Malec-ek etorkinen aldeko elkartearen inguruan hitz egin du.

Nola osatuta dago Jatorrin?

35 kide inguru izango gara elkarteak. Magrebiarrak gara gehienak, baina euskaldunak ere aurkitzen dira bertan.

Zein da Jatorrinaren helburua?

Alde batetik kulturen arteko harremana bultzatzea da helburua, denok bat egin dezake-

gun espazio bat sortu nahi dugu, ulermenean oinarritua. Horrekin batera, etorkinari laguntzeko emateko ere aurkitzen gara.

Bertako kulturarekin bat egitea, euskara ikastea adibidez, bultzatzen al duzue?

Etorkina bertan integratzea bultzatzen dugu, hemengo kodarekin bat egitea. Gure semeak ere euskarazko irakas-

kuntzan apuntatzen ditugu, integrazio hori beharrezkoa ikusten dugulako eta euskara horretan lehentasuna delako. Bigarren belaunaldiak txikitatik hori bizi dezan da gure esperantza.

Etorkinak ez du boto eskubiderik hauteskundeetan?

Boto eskubidea eduki behar gogok. Denek bezala ordaintzen ditugu zergak, baita



I.T.

bertan lan egin ere. Europako beste hainbat lekutan badute eskubide hori etorkinek, baina hemen ez.

AZOKA ▶

Giro polita atzokoan, azokako mahaietan

Zerrenda zabala izan zen; aipatzekoa, baratarako landareen postuetako giroa

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka euritsua eta lasaia azaldu zen goizeko lehenengo orduetan, eta piskanaka-piskanaka giroa berotzen hasi zen. Goizaren bukaera aldera, berriz, eskaintza ederra zela eta, salmentak eta giroa asko berotu ziren.

Zerrenda zabala izan zen, barazki asko, marrubiak nobedade zirela, perretxiko zerrenda bete, ondo, ziza eta senderuelarekin, eta bizitasuna postuetan.

Aipatzekoa izan zen berduraz plaza baratarako landareen postuetan ikusitako giroa. Erosle asko gerturatu zen mahaietara, eta salmentak goizeko azkenengo orduetan handiak izan ziren. Garaia da baratzen landareak sartzeko, eta horrek isplu izan zuen salmentetan.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Begonia	1,20	-
Alegria	1,20	-
Salbia	1,00	1,20
Lobelia	4,00	-

Bertako produktuak

Onddoa	30,00	-
Ziza	22,00	50,00
Ziazerba	1,00	1,50
Kalabazina	0,72	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Baraturia	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00

EGITARAUA ▶

ETZI, MAIATZAK 22

19:00. Baltistan bailarari buruzko erakusketaren irekiera. Ekainaren 1era arte izango da ikusgai.

19:00. Te eta gozoki tipikoaren dastaketa. Ekitaldian Felix Iñurategi-Baltistan fundazioaren lehendakaria egongo da, Txema Camara.

ASTEAZKENA, MAIATZAK 23

19:00. *Immigrazioa Euskadin*

hitza: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria-Gipuzkoa).

OSTEGUNA, MAIATZAK 24

19:00. *Pakistan: Ekialdearen eta Mendebaldearen artean. Egoera geopolitikoa gaia* aztertuko du Txente Rekondok, Nazioarteko Ikerketarako Euskal Lantaldeko kideak.

OSTIRALA, MAIATZAK 25

19:00. *Marcopoloren urratsen*

atzetik. Zetaren bidetik bidaiari gaiaren inguruan ariko da hizketan Jon Lazkano, Banoakoko kidea.

LARUNBATA, MAIATZAK 26

21:00. Tolosako Oargi elkarteak afaria eta *Al filo de lo imposible* dokumentala. Afarirako izen-ematea, 660 410 548 telefono zenbakian. 12 euro ordaindu beharko dira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. San Joan jaietan, ekainaren 17an eta 24ean, egingo diren batel estropadetarako izen-ematea bihar itxiko da, 607 84 52 82 telefono zenbakian.

ZINEMA

Tolosa. Las vacaciones de Mister Bean filma, 19:30ean Leidorren. Bihar, 20:30ean izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

Bihar

Irurtzun. Mutloa, A. San Martin, 5. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
Gaur: 11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepikapena).
Bihar: 11:00. Eguraldia Joxe Landarekin; 11:15-13:00. Hauteskundeak (11:15: Fidel Azpiroz Anoetako EAJren alkategaia; 12:00: Periko Peñagarikano EAren Anoetako alkategaia; 12:30: Onintza Lasa EAren Tolosako alkategaia); 13:00-13:30. Info 7 irratiako albistegiak; 13:30-14:00. Lehiaketa, disko eskainien tartea eta agenda.


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gaztetxeak 8 urte beteta, patata tortilla lehiaketa

ANOETA ▶ Gaztetxe VIII. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Anoetan. Tartean, klasiko bihurtzen ari den patata tortilla lehiaketa eta entsalada lehiaketa eta entsalada lehiaketa. Elkar-tuz ziren 6 bat laguntalde, sukaldetan nor hobe ariko, lehiatzen. Gero, bazkaritarako, haiek prestatutako jakiak dastatzera ausartu ziren. N. URBIZU

AGURRAK ▶



ZORIONAK!
Aritz Larreta (25 urte).
 Zorionak ebekoen partetik.



ZORIONAK
Estanix (Getaria). Muxu handi handi bat Amaroako aitona, amona, Oroitz eta Iraitzen partetik.



ZORIONAK
Aitor Balardi Pagola (Tolosa). Zure lehenengo jaunartze egunean, Lizartzako familiaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

URTE ASKOAN
Timotea Larreta (Ibarr).
 Seme-alaba, biloba eta birloben partetik, zorionak.

OLATZ
 INGENIERIA

VILLABONA: Larrea. 2 logela. Erdi eraberritua. Interesgarria.
VILLABONA: 2 logela. Eraberritua. Igogailua. Prezio ezberdinak.
VILLABONA: Eraikuntza berriko apartamentua.
VILLABONA: Larrea. 3 logela. Garajea. Oso interesgarria.
VILLABONA: 3 logela, eraberritua. Balkoi ederra. Ganbara.
VILLABONA: Txermin. 3 logela. Eraberritua. Prezio ona.
ZIZURKIL GOIA: Duplexa. 120m2 bere garajearekin.

Errota 3 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

LSB
 La Salle Berrozpe
ANDOAIN

LANBIDE HEZIKETA LA SALLE-BERROZPEN

MAIATZAK 22 ATE IREKIAK

- Lanbide hastapena:
 - * Elektrizitatea
- Erdi Mailako Zikloak:
 - * Merkataritza
 - * Elektromekanika
- Goi Mailako Zikloak
 - * Administrarritza
 - * Mekanika
 - * Elektronika

Zure etorkizuna, gure erronka

Ekainak 1etik 7ra **Aurrematrikulak**

La Salle etorbidea, 5 Andoain
 Tel.: 943 590 557
 www.lasalleberrozpe.com

ceinpro

Diseinuar eta kreoazioa halmenean oinarritutako heziketa

- DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
 ARTE GRAFIKOTAN D FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
 IRALIPENA - 2. ikasturte / 2000 ordu
 GARRIENA - LH1 - LH2 - EE1 - edo HSAOL GATZELERDIA gaituztu
- ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
 ARTE GRAFIKOTAN D FAMILIA PROFESIONALEAN ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
 IRALIPENA - 2. ikasturte / 2000 ordu
 GARRIENA - 2. DBE - LH1 - EE1 - edo OBE gaituztu

Herrizko ikastetxeak, BE, BCCOE, Cereales, Diputazio
 Tel: 943 510 815
 Tel: 943 510 815